


KOSTUAK

Gure enpresa **Kalorella**, sozietate mugatu bat izango da orduan kapital minimoa jarri behar dugu gure enpresa legala izateko. Hau da, 3.000 € ordaindu behar ditugu lauen artean horrek esan nahi du bakoitzak 750 € jarri behar ditugula.

Hainbat gastu izango ditugu. Gure gastuak bi zatitan banatzen dira: kostu finkoak eta kostu aldakorrak. **Kostu finkoak** hasieran behar ditugun gastuak dira eta **kostu aldakorrak**, zenbat eta produktu gehiago egin, hilabete batean kostu gehiago edukiko ditugu. Guk, lehenengo hilabetean 100 unitate egingo ditugu, hau da, 100 gerriko poltsa.

Lehenengo, **kostu finkoak** azalduko ditugu. Hauek dira gure produktua sortzen hasteko derrigorrez ordaindu beharrezko kostuak.



4 fotos Plano Mapa

Alquiler de local en Calle Kaleberria

Andoain Ver mapa

450 €/mes

52 m² 8,65€/m²

Gure produktua sortzeko, lokal bat behar dugu. Gure lokala, Andoainen, Kaleberrian kokatua dago.

([https://www.idealista.com/inmueble/96156029/?utm](https://www.idealista.com/inmueble/96156029/?utm_medium=socialmedia&utm_campaign=pri)

[_medium=socialmedia&utm_campaign=pri](https://www.idealista.com/inmueble/96156029/?utm_medium=socialmedia&utm_campaign=pri)

[vate_sendadtofriend&utm_source=copiedLink](https://www.idealista.com/inmueble/96156029/?utm_medium=socialmedia&utm_campaign=pri)). Hilabetero 450€ ordainduko ditugu.

Produktua fabrikatzeko makinak eta tresnak behar ditugu: josteko makina industrialia, 2 unitate erosiko ditugu, bakoitzak 950€ balio ditu, beraz biak 1900€.



Hala ere, tresna txikiak ere behar ditugu: bi pakete guraize profesional, 40€ guztira. Bi cutter, 48€ guztira. 3 erregela handi, 30€, neurketak egiteko. Alfiler pakete bat, 8€, josten hasi aurretik ohialak ez mugitzeko. Tripode bat, 25€, mugikorra eusteko, argazkiak eta bideoak egiteko.

Laneko antolaketa eta administrazio digitala egiteko ordenagailu bat edukiko dugu, Lenovo markakoa 207,99€.

Canva Pro softwarea urtero 12€ ordainduko ditugu, diseinu grafikoak eta marketing materiala egiteko.

Tailerraren antolaketa hobetzeko, bi mahai jarriko ditugu 700€ guztira. 2 armairu, 400€, eta bost zaborrontzi 50€, materialak eta tresnak modu ordenatuan birziklatzeko. Gauza hauek aldatzen joango dira urtean zehar, zerbait puskatuz gero berriro erosi beharko ditugulako.

Makina eta tresna guzti hauek behar-beharrezkoak dira produktuak fabrikatzeko, tailerra antolatzeko eta laneko espazio egokia izateko.

Bestalde, **kostu aldakorrak** azalduko ditugu. Oraindik ez dakigunez nola funtzionatuko duen gure enpresak, hau da, irabazi asko edukiko ditugun edo jendeak zenbat erosiko duten gure produktua. Lehen hilabetea, 100 unitate ekoiztuko ditugu eta jendeari gustatzen bazaio, gehiago ekoiztuko dugu.



Gerriko poltsa disenatzeko eta ohialak markatzeko ohialak mozteko makina erabiliko dugu produktua azkarrago ekoizteko, 84,44€ balio du, eta urtean 2

unitate erosiko ditugu. Hotz-sistema egiteko, gel pack berrerabilgarriak erabiliko ditugu, 2 euro unitate bakoitza eta poltsaren barrualdea estaltzeko aluminiozko PVC forruak jarriko ditugu, 20 metro erosiko ditugu eta horren kostua 3 eurokoa da.



Bero-sistema egiteko, bateria eramangarriak erabiliko ditugu, 8 euroko kostua du eta sistema elektrikoa lotzeko 2 euroko kable elektrikoak erabiliko ditugu.

Gure produktua erakargarria izateko, pegatinak gure logotipoarekin erabiliko ditugu 0,20 € unitateko kostatuko zaigu, eta bezeroei eskerrak emateko, txartelak (85 × 55 mm) eta 0,5 € unitate bakoitzak. Baita ere goxoki poltsak jarriko ditugu, 0,30 € poltsa bakoitza.

Produktuak osatzeko erabilitako argindarrak 60 € gutxi gorabehera kostatuko zaigu. Lokalean ere ura erabiliko dugu, gure kontsumorako hilabetero, kuota minimoa ordainduko dugu 10€ hilabetero. Bestealdetik, wifia ere edukiko dugu lokalean hilabetero 10€ ordainduko ditugu.



Azkenik, jendea gure produktuaz ohartzeko eta pertsona gehiagorentzat iristeko, publizitatea egingo dugu. Hau da, TikTok eta Instagramen kontu bat sortuko dugu non egunero produktuaren bidioak eta argazkiak igoko ditugu. Hala ere, pertsona famatuekin kontaktatuko dugu eta gutxigorabhera 300€ ordainduko diegu.

Hilabeteen 20 egunetan lana egingo dugu gutxi gorabehera, 8 ordu egun bakoitzean, hau da, asteburuetan eta jai egunetan ez dugu lanik egingo. Egun haietan egiten dituzten eskaerak, astelehenean egingo dira bidalketak. 4 langile garenez, bakoitzak postu batean lana egingo du.

4 pertsona garenez, gure lana banatuta egongo da, hau da, bakoitzak postu batean egingo du lana. Horrela egongo da banatua:

Behin ekomodoko telak iristen direnean, enpresaren partaideak 3 sekzioetan banatuko dira.

- Pertsona batek (Katiak), markatu eta moztu egingo ditu gerriko poltsak.
- Beste bi pertsonak (Maialenek eta Iratik) josteko makinaren bidez, gerriko poltsak josiko dituzte.
- Azkeneko pertsonak (Aroak), hotz eta bero sistemak instalatuko ditu.
- Bukatzeko, taldeko batek paketeak prestatuko ditu.

Horretarako pentsatu dugu, ohialak mozten dituen pertsonak lanera goizago etorri behar duela gero bidalketekin jartzeko besteak produktuan lan egiten duten bitartean.

Hau guztia kontuan izanda, gure hilabeteko soldata hau izango da: 839,31€ . Lehen urtean 282691,03€ gastatuko dira (BEZa barne). Gastu handiak egongo dira hasieran, baina urte amaieran 43.112,20 € irabazi aurreikus daude. Irabazien gaineko %15eko zerga 6.466,83 € izango da. Zerga kenduta, enpresak 36.645,37 € gordeko ditu.



* BIBLIOGRAFIA : Pertsonak ateratzen diren lekuan, canvako la-rekin argazkiak sortu ditugu. Hau da, aplikazio horretan eskatu diogu "HAZME UNA FOTO DE UNA CHICA MORENA CON UNA REGLA HACIENDO MEDIDADAS DE UNA TELA Y ALREDEDOR MAKINAS DE COSER" "HAZME UNA FOTO DONDE UNA CHICA FAMOSA HACIENDO UN VIDEO CON UN MOVIL HACIENDO UNA PUBLICACION A UNA RIÑONERA NEGRA".